

**1034/2016 EBAZPENA, BARRUALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, BEHIN BETIKO BARNE MUGIGARRITASUNEN DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA, BARRUALDE-GALDAKAO ESIN HAINBAT LANPOSTU HUTS BETETZEKO.**

2015eko ekainaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2015eko ekainaren 10eko akordioa, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarena. Akordioak onetsi ditu, ente publikoaren zerbitzu-erakundeetan, lanpostuak aldi baterako edo behin betiko barne mugigarritasunaren bidez hornitzeko irizpide orokorrak.

Langileak haien lanpostura ondo egokitzeko; langileei lanpostuaz aldatzeko aukerak sortzen dien estimulua eskaintzeko, eta/edo lan-baldintzak hobetzeko; langile finkoen behin betiko barne mugigarritasuneko deialdia egiten da, gardentasuneko eta berdintasuneko irizpideen pean.

Zerbitzu erakunde honetan zerbitzu egokia eskaintzeko bete gabeko zenbait lanpostu hornitzeko beharra ikusita, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ente publikoaren estatutuak ezartzen dituenaren, 15. artikulua dioena betez,

#### **EBAZTEN DUT:**

Barne mugigarritasunaren deialdi publikoa egitea, I. eranskinean zerrendatu diren bete gabeko zenbait lanpostu Zerbitzu Erakunde honetako langile finkoekin hornitzeko, eta ondoko oinarrietan ezarritakoa aplikatu behar da

#### **DEIALDIAREN OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Eskaintzen diren lanpostuak: Ondoriozko destinoak (aurreko Behin betiko Barne Mugikortasunaren ondorioz sortzen diren lanpostu hutsak), dagozkien kategoriak baita beren hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ere, hala daukaten kasuetan, (I. Eranskina).

RESOLUCIÓN 1034/2016, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO POR LA QUE SE PUBLICA CONVOCATORIA DE MOVILIDAD INTERNA DEFINITIVA PARA LA COBERTURA DE VARIOS PUESTOS VACANTES DE LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO.

Con fecha de 23 de junio de 2015 se publicó en el Boletín oficial del País Vasco el Acuerdo de 10 de junio 2015, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueban los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna, temporal y definitiva, en el conjunto de las organizaciones de servicios del Ente Público

Con objeto de lograr la óptima adecuación del personal a su puesto de trabajo, ofrecer a los trabajadores el estímulo que provoca la posibilidad de cambiar de puesto y/o mejorar las condiciones de trabajo, se realiza la presente convocatoria de movilidad interna definitiva del personal fijo, bajo los principios de transparencia y equidad en su asignación.

Estimándose necesario para la correcta prestación del servicio la provisión de diversos puestos vacantes existentes en esta Organización de Servicios, y de conformidad con la atribución de competencias en materia de personal recogida en el artículo 15 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales el Ente Público Osakidetza-SVS,

#### **RESUELVO:**

Efectuar convocatoria pública de movilidad interna permanente para la provisión por parte del personal fijo perteneciente a esta Organización de Servicios, de los diversos puestos vacantes relacionados en el Anexo I, siendo de aplicación al efecto las siguientes

#### **BASES DE LA CONVOCATORIA**

**Primera.-** Puestos que se convocan: Destinos de resultados (vacantes generadas como consecuencia de la Movilidad Interna Definitiva anterior) la categoría a la que pertenecen, así como el perfil lingüístico y la preceptividad si la tuviera (Anexo I).

Destino hutsak, dagozkien kategoriak baita beren hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ere, hala daukaten kasuetan, (II. Eranskina).

**Bigarrena.- Betekizunak:**

Barrualde-Galdakao ESIn, plaza jabetzan daukan lanpostu-zerrendako langile finkoa izan behar da. Horrez gain, eskatzen den kategoria bereko lanpostuan lanean egon behar da edo administrazio-egoera baliokidean.

Deialdi honen argitalpen data baino lehenagoko derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuneko lanpostua lortu nahi dutenek, deialdi hau argitaratzen denerako dagozkien hizkuntz eskakizunaren jabe izan behar dute.

Destinorik lortu izana aurreko behin betiko barne mugigarritasun baten bidez, interesatuak urtebete eman beharko du, gutxienez, destino berrian, erakundearen barnean mugikortasun prozesu berri batean parte hartzeko aukera izan baino lehen.

**Hirugarrena.- Baremazioa:**

Egiatzatutako merituetan oinarrituz egingo da eskabideen baremazioa.

Oro har lanbide esperientziari eta euskarari buruzko irizpideei dagozkienak hartuko dira kontuan, kategoria zehatzeko lekualdaketa orokorretarako azken lehiaketarako ezarri bezala.

Deialdia hau argitaratu den egunera bitarteko lanbide esperientzia, izangaiek hala aitortuta daukatena, hartuko da kontuan.

**Laugarrena.- Eskabideak aurkeztea:**

Interesatuak intraneten bidez beteko dute eskabidea: intraneteko aplikazio informatikoan dagoen eskabide-inprimakia da, hain zuzen ere, bete behar dutena; bertan, destinoak lehentasun hurrenkeraren arabera aukeratuko dituzte. Eskabidea egiteko bidea (Barrualde-Galdakao ESiko intraneta: PROFESIONALAK → HAUTAKETA ETA MUGIKORTASUNA → BARNE MUGIKORTASUNA → BEHIN BETIKOA).

Eskabidea betetzeko, Windows-en sartzeko erabiltzen den kodea erabiliko da. (Norbide kodea).

Destinos vacantes, la categoría a la que pertenecen, así como el perfil lingüístico y la preceptividad si la tuviera (Anexo II).

**Segunda.- Requisitos:**

Ser personal fijo de plantilla con plaza en propiedad en la OSI Barrualde-Galdakao, encontrarse en servicio activo o asimilada, y pertenecer al mismo puesto funcional que el del destino al que se desea concursar.

Quienes deseen optar a los puestos con perfil lingüístico cuya fecha de preceptividad sea anterior a la publicación de esta convocatoria, deberán estar en posesión del correspondiente perfil a la publicación de la presente convocatoria.

De haber obtenido destino en una movilidad interna definitiva anterior, el interesado deberá haber permanecido en el nuevo destino al menos un año antes de poder participar en un nuevo proceso de movilidad dentro de la Organización.

**Tercera.- Baremación:**

Las solicitudes se baremarán sobre la base de los méritos acreditados.

Se considerarán con carácter general los correspondientes a los criterios de experiencia profesional y euskera, en los términos establecidos para el último concurso de traslados de carácter general de la categoría correspondiente.

Se computarán los servicios prestados que los aspirantes tuvieran reconocido hasta la fecha de publicación de la presente convocatoria.

**Cuarta.- Presentación de solicitudes:**

Los interesados deberán formalizar la correspondiente solicitud a través de la intranet, mediante la cumplimentación de la solicitud disponible en la aplicación informática correspondiente eligiendo los destinos por orden de preferencia. Ruta para realizar la solicitud (Intranet de la OSI Barrualde-Galdakao: PROFESIONALES → SELECCIÓN Y MOVILIDAD → MOVILIDAD INTERNA → DEFINITIVA).

Para la cumplimentación de la solicitud, los participantes deberán utilizar la misma clave de acceso (Clave Norbide) utilizada para acceder a Windows.

**Eskabideak aurkezteko epea: 2016ko ekainaren 1etik 12ra bitartekoa izango da.**

Onartu egingo dira eskabideari edo hautatutako destinoetakoren bati uko egitea, eskabideak aurkezteko epean, baita behin betiko emaitza argitaratu baino lehen aurkeztutakoak ere. Azken kasu horretan, Pertsonaleko Zuzendaritzaren aurrean behar bezala erregistratutako idazkia aurkeztu beharko da, zirkunstantzia horiek adierazten dituenak. Ondorio horietarako, behin betiko ebazpen horren berri Barrualde-Galdakao ESiko iragarki taulan eta Intranetean emango da.

**Bosgarrena.- Erantsi beharreko dokumentazioa:**

Deialdi honetako datan derrigortasun data muga eguneratuta daukaten lanpostuak lortzea helburu duten izangaiak titulazio edo egiaztagiri konpultsatuaren kopia ekarriko du. Ez dituzte dokumentu horiek aurkeztu beharko, aipatu hizkuntza eskakizuna edota horren parekoa egiaztatuta daukaten parte-hartzaileek, baita beste administrazio publiko baten bidez lortu, eta baliokidetzat Osakidetza egiaztatuta dietenek ere.

Ez da aurkeztu beharrik izango dagoeneko SAPeko aplikazioan, Pertsonalaren kudeaketa atalean jasota dagoen lan esperientziaren agiririk. Pertsonaleko Zuzendaritzatik ofizioz sartuko dira, eta ezarritako irizpideen arabera barematuko.

**Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatuta gabeko merituen ezaugarriak, inolaz ere, baloratu.**

**Eskabidean eta ematen edo balidatzen den dokumentazioan datu faltsuak jartzen badira, eskabidea baliogabetu egingo da, egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk hartzearen kaltetan izan gabe.**

**Seigarrena.- Lanpostuen behin-behineko eta behin betiko esleipena:**

**Eskabideen baremazioa behar bezala egin ondoren, behin-behineko emaitza Barrualde-Galdakao ESiko intranetean eta iragarki tauletan argitaratuko da; erreklamazioak egiteko 7 egun naturaleko epea irekiko da, emaitza argitaratu den biharamunetik zenbatzen hasita.**

El plazo de presentación de las solicitudes será del 1 al 12 de junio de 2016.

Se admitirán las renunciaciones a la solicitud o a alguno de los destinos elegidos, durante el plazo de presentación de solicitudes, así como con carácter previo a la publicación del resultado definitivo. En este último caso deberá presentarse escrito debidamente registrado ante la Dirección de Personal en el que se hagan constar tales circunstancias. A estos efectos, se anunciará en los tablones de anuncios y en la Intranet de la OSI Barrualde-Galdakao la fecha de publicación de dicha resolución definitiva.

**Quinta.- Documentación a adjuntar:**

El aspirante que opte a puestos con fecha de preceptividad vencida al momento de esta convocatoria, aportará fotocopia compulsada de la titulación o acreditación que posea. Estarán exentos de aportar dicha documentación los participantes que tuvieran ya reconocida la acreditación del correspondiente perfil lingüístico o tengan acreditada la equivalencia del perfil lingüístico emitido por otra Administración Pública, por parte de Osakidetza-SVS.

No será precisa la presentación por parte de los participantes de los servicios prestados que ya consten en la aplicación SAP de Gestión de Personal. Estos se incorporarán de oficio desde la Dirección de Personal y serán baremados conforme a los criterios establecidos.

En ningún caso podrán valorarse los méritos que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

La consignación de datos falsos en la solicitud, así como en la documentación que se aporte o valide, se sancionará con la anulación de la solicitud, sin perjuicio de la adopción de otras medidas que se consideren oportunas.

**Sexta.- Asignación provisional y definitiva de los puestos:**

Tras la baremación de las solicitudes, se publicará el resultado provisional del proceso en los tablones de anuncios y en la Intranet de la OSI Barrualde-Galdakao, dando un plazo de presentación de reclamaciones de 7 días naturales desde el día siguiente a su publicación.

Aurkeztutako erreklamazioak ikusita, behin betiko zerrenda egingo da, eta lanpostuarekiko atxikipena Barrualde-Galdakao ESIko Gerentzia Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez egingo da. Hori Barrualde-Galdakao ESIko intranetean eta iragarki tauletan argitaratuko da.

Ebazpen honetan adostutakoaren kontra, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da, argitaratzen den hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori guztia indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 114 eta 115 artikuluetan adierazitako aurreikuspenen arabera.

Estudiadas las reclamaciones presentadas, se elaborará el listado definitivo y se aprobará la adscripción al puesto mediante resolución de la Dirección Gerencia de OSI Barrualde-Galdakao, el cual será publicado en los tablonos de anuncios y en la Intranet de la OSI Barrualde-Galdakao.

Contra lo acordado en la presente Resolución podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación, todo ello de conformidad con las previsiones contenidas en los Artículos 114 y 115 de la vigente Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Galdakaon, 2016ko maiatzaren 31n

En Galdakao, a 31 de mayo de 2016

BARRUALDE-GALDAKAO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA/  
DIRECTOR GERENTE DE LA O.S.I. BARRUALDE-GALDAKAO



Iz./Fdo.: JON GUAJARDO REMACHA

**I. ERANSKINA-ONDORIOZKO DESTINOAK**

Kategoria	Unitatea/Zerbitzua	Kodea	H.E.	Derrigortas. Data	Txanda
F.E. PEDIATRIAKO MEDIKUA -LMT	Berriz (Kontsultategia)	8781	2	2005/06/01	Goizez
F.E. PEDIATRIAKO MEDIKUA -LMT	Lekeitio (Osasun Zentroa)	8784	2	2008/06/01	Goizez

**ANEXO I- DESTINOS RESULTAS**

Categoría	Unidad/Servicio	Código	P.L.	Fecha Preceptividad	Turno
F.E. MEDICO PEDIATRA - EAP	Berriz (Consultorio)	8781	2	01/06/2005	Mañana
F.E. MEDICO PEDIATRA - EAP	Lekeitio (Centro de Salud)	8784	2	01/06/2008	Mañana

**II. ERANSKINA-DESTINO HUTSAK**

Kategoria	Unitatea/Zerbitzua	Kodea	H.E.	Derrigortas. Data	Txanda
F.E. PEDIATRIAKO MEDIKUA -LMT	Gernika (Osasun Zentroa)	9639	2	2005/06/01	Goizez
ERIZAIANTZAKO LAGUNTAILEA	Galdakao-Usansolo Ospitalea-4. A	11922	2	2015/12/28	Txandaka

**ANEXO II- DESTINOS VACANTES**

Categoría	Unidad/Servicio	Código	P.L.	Fecha Preceptividad	Turno
F.E. MEDICO PEDIATRA - EAP	Gernika (Centro de Salud)	9639	2	01/06/2015	Mañana
AUXILIAR DE ENFERMERIA	H. Galdakao-4ª A	11922	2	28/12/2015	Turnos